

### Ategorrieta Proiektua: informazio-bilera

Datorren maiatzaren 24an, arratsaldeko 17:30ean, bilera informatibo bat egingo dugu Ategorrieta Proiektuaren lanketa integralaren inguruan. Bertan, Lehen Hezkuntza etapako proiektu pedagogikoaren informazioa partekatuko dugu, bai eta eraikinak berak proiektu honetan duen garrantzia azaldu ere. Bileran parte hartzeko ezinbestekoa izango da [galdetegi](#) hau betetzea.



### Ekin Euskarari Astea

Aurreko astean aurreratu genizuen moduan, ikasleok kezka handiz jaso genituen euskararen erabilera-neurketenemaitzak, eta aste honetan euskararen erabilera areagotzeko kanpainak diseinatzen aritu gara, gelaka. Ideia ugari izan ditugu, eta gela bakoitzak ekintza bat burutuko du datorren astean: Ekin Euskarari Astea izango da maiatzaren 10etik 14rako.



### HH2koak parkean

Orain dela aste batzutatik hona, 2 urtekoak ikastola ondoko parkera joaten hasi gara! Izugarri gozaten dugu bertan: janaria prestatuz, adarretara igoz, otsoaren bila arituz, harrapaketatlan jolastuz...



### HH4 - Basoeskola

HH4ko taldeak aste honetan basoeskolako saioekin hasi gara! Lore-baratzetan goiza pasatzeko giro paregabea egin digu, eta bertan, udaberriaz gozatzeko aukera izan dugu, bere lore, xomorro eta bestelakoekin. Argazkian agertzen den animalia izena ba al dakizue? Uhandre palmatua da, Euskal Herrian aurkitu daitekeen anfibio isatsdun txiki eta arruntena. Ondo-ondo zaindu beharrekoa, baita bere bizileku diren putzu eta urmaelak ere bai!



### LHkoak Ulian

Maiatzeko kukua entzuteko asmoz, LH 4, 5 eta 6ko ikasleak Ulian ibili gara, goiz-pasa batzuk eta egun-pasa besteok. Orientazio-ibilbideak, zabor-bilketa eta beste hainbat jarduera interesgarri egin ahal izan ditugu naturak eskaintzen dizkigun baiabideei esker, eta ikastola ondoan dugun altxorraz gozatu dugu guztiok.



### Urkabe margotzen

Aurten, ia urtero bezala, Adieazpen Grafikoa ikasgaian muralen proiektuak burutu eta hauek margotzeko aukera izan dugu. Aurten, ordea, ikastolako hormez gain, kanpoko horma batean ere margotu dugu murala, Urkabe tabernan hain zuzen ere. Han eginiko lana ikusteko, bideo txiki bat prestatu dugu. Mila esker proiektua aurrera eraman duzuen guztioi, lan bikaina!



### OHARRAK / AGENDA:

- **HH5:** Basoeskola. HH5C-D (Amaia-Aitziber) goizpasa, maiatzak 11. HH5A-B (Ainere-Miren) goizpasa, maiatzak 14.
- **HH4:** Basoeskola. HH4A-B (Ekain-Ainhoa) goizpasa, maiatzak 11 eta 13. [Zirkularra](#).
- **LH6:** Ikasle-laguntzaile saioa. Maiatzak 12.
- **DBH4:** Boluntarioritza-saioak (Ireki Begiak). Maiatzak 12.
- **Gurasoen Euskara Batzordea:** Familientzako [galdetegia](#).
- **Grosetako Gaztelekua:** Maiatzeko [programazioa](#).

